

TxiKittu

2016ko otsaila

158 zbk.



**Arato steak
2016**



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Maider Aranberri,
Ana Aizpurua eta Eibarko
ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Maider Aranberri, Ainhoa
Luz eta Ana Aizpurua.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



Txis teak

Neska txiki bat metroa hartzera zihoan eta
esaten dio kalean topatzen duen mutil handi
bati:

- Aizu, jauna, esango zenidake, mesedez,
zenbat falta zaidan metroraino?
- Ba, hamar bat zentimetro edo.

Mohamed Touimi



Bi emakume elkartzen dira eta
esaten dio batak besteari:

- Nire senarra aingeru bat da!!
Eta besteak erantzuten dio:
- Hori zortea! Nirea oraindik bizirik dago!

Paola Martinez



- Doktore jauna! Ezin dut bururik altxa,
bakarrik egiten dut barre, ez dut jendearekin
hitz egiten, jendeak hitz egiten badit ez diet
arretarik jartzen, kaikua ematen dut! Zer daukat,
doktore jauna?

- Whatsapp.

Mussaab Abida eta Noman Muhammad





Zer esaten dio mozkor batek beste bati?
- Zu ni baino mozkorragoa zaude!
- Ez, zu bi aldiz ikusten zaitudalako!
Zer esaten dio mahats berde batek mahats more bati?
Arnasa hartu!!!

Maialen Bravo



Mozkor bat kaletik doa eta emakume sudur luze bati esaten dio:

- Itsusi! Itsusi!

Eta emakumeak erantzuten dio:

- Mozkorra! Mozkorra!

- Bai, baina niri bihar pasako zait eta zuri ez!!

Maidier Olasolo



JAJAJA
JAJAJA

Soldadu batek galdetu dio beste bati:
- Zertan ari zara?
- Hemen, emazteari idazten!
- Eta zergatik idazten duzu hain poliki?
- Nire emazteak ez dakielako azkar irakurtzen!

Anne Mata



Denborapasak

7 DESBERDINTASUNAK



Ane Vicites

B A A L I B U R U A P N I
O K Z A H A I A H A N M K
L A T U B D A P B A A A A
I M A L Z E T N A H S K S
G O K K O R H J A F I N L
R N R I H E A I K G J O E
A P A A O N A E D A O K A
F A O Z H U M I Z K B A L
O M A O L I K Z O R R O Z
A M I S A R B E L A L E A
E H I Z T E G I A M B O S

Hizki-salda

Eskolan dauden 8 gauza

Endika Gonzalez


Lehiaketa



AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **ANE SALABERRIA** izan da. Argazkian duzue saria jasotzen. Pare bat liburu eraman ditu Anek etxera. Zorionak!

LABIRINTOA



**BIDALI ERANTZUNA MARTXOAK 2 BAINO LEHEN.
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA. Urkizu 11. Eibar.**

Izen-abizena

AdinaTel.....

Denborapasak

Hizki-salda

- UNTEA
- ABERI
- TXORIA
- IGELA
- AHATEA
- KATAMIXARRA
- ERLEA
- SUGEA
- ZALDIA

U	R	H	F	W	Y	Z	P	Q	U	L
G	N	A	A	P	Z	L	O	E	F	A
V	U	T	X	O	R	I	A	N	Z	I
M	W	Y	X	M	X	O	P	X	Z	O
T	H	A	L	I	G	E	L	A	X	L
U	P	E	Y	R	A	Z	E	R	F	A
O	S	T	A	O	A	H	R	J	O	Z
R	Q	A	H	G	M	G	L	K	R	A
V	U	H	U	I	E	Q	E	L	U	L
T	Z	A	J	K	F	Y	A	X	C	A
S	R	U	L	M	G	Z	X	U	D	B
K	A	T	A	M	I	X	A	R	R	A

Mircia Conde

Hizki-salda

Lurrean aurki ditzakegun
zazpi animalien izenak

E	T	A	R	A	N	T	U	L	A	O
R	M	H	N	D	I	O	I	L	B	K
A	T	A	U	E	P	R	O	A	E	I
Z	P	T	R	X	A	A	T	O	E	L
T	I	E	D	R	B	R	X	N	D	A
N	E	A	L	A	A	S	E	A	A	M
O	F	X	R	S	T	Z	I	R	B	F
H	S	A	B	E	L	U	O	R	J	I
A	G	O	B	U	S	T	I	A	L	E
I	P	O	T	X	P	A	E	B	O	K

Leire Valle

Hizki-salda

Aurkitu 7 jokalariak

C	W	A	R	O	Q	S	H
A	E	H	G	Y	J	R	Q
Z	L	A	A	D	O	U	Y
O	B	L	D	Z	L	P	R
R	E	U	I	N	A	S	T
L	C	H	W	Z	M	R	O
A	K	G	I	R	O	U	D
B	B	E	G	O	V	I	C

Matias



LEHIAKETA!!!

**Txikitto!-k irudi berria behar du!
Eta horretarako zuen laguntza behar dugu**

Hona hemen zer egin behar duzuen:

- 1. Lehiaketan LHko 5. eta 6. mailetako ikasleek hartuko dute parte.**
- 2. Gaia: Txikitto! aldizkaria irudikatuko duen irudi bat: animalia bat, ume bat, aldizkari bat, asmatutako zezer...**
- 3. Teknika: eskuz zein ordenagailuz egin daitezke (JPG formatuan), A4 neurrian.**
- 4. Lanak koloretan aurkeztuko dira.**
- 5. Pertsona bakoitzeko lan bakarra onartuko da.**
- 6. Taldean egindako lanik ez da onartuko.**
- 7. Lanak gaitzizenarekin aurkeztuko dira. Erantsita, kartazal itxi bat ekarri beharko da. Kanpoaldean gaitzizena jarri, eta barruan, izen-abizenak eta telefonoa.**
- 8. Emailerik ez da lanik onartuko.**
- 9. Lanak aurkezteko epea apirilaren 12an amaituko da, ...eta kitto! Euskara Elkartean, Urkizu 11 solairuartea. 20600 Eibar.**

- Saritutako lana ...eta kitto! Euskara Elkartaren esku geldituko da, eta berretzat gordeko ditu lana editatzeko eta erabiltzeko eskubideak.

- Lehiaketa honetan parte hartzerakoan oinarri hauek onartuko dira.

Informazio gehiago: 943200918



Eibarko artista gazteak

Aratosteak pasatu berri ditugu, mozorroak gordetzeko unea da, eta ateratako argazki mordoxkak ikusteko unea ere bai. Jaien aurretik, baina, aurtengo gazteen mailako Aratosteetako Kartel lehiaketako irabazleekin egon ginen berbetan. Hona hemen eurekin izandako solasalditxoak. Zorionak, hirukote!!



Lucia Zubizarreta (10 urtera artekoen mailan irabazlea)

- Zelan jakin zenuen irabazi zenuela?
Amak esan zidan, eta oso pozik jarri nintzen!! Ilusio handia egin zidan irabazteak. Urduri ere jarri nintzen.
- Zenbatetan hartu duzu parte?

Marrazki-eskolan nabil, eta bi urtetan hartu dut parte.

- Nondik etorri zitzaizun marrazkia egiteko ideia?
Interneten saltseatu nuen eta ideia handik hartu nuen.
- Zenbat denbora behar izan zenuen kartela egiteko?
Gutxi gorabehera bi astetan egin nuen.
- Zeini dedikatuko diozu saria?

Etxeko danei.

- Non ikus daiteke zure kartela?
Urte amaieran, marrazki-eskolak, erakusketa egingo du gure lanekin, han bertan.
- Non jarriko duzu zure marrazkia?

Nire logelan.

- Hurrengo urteetan parte hartzen jarraituko duzu?

Bai!!!



Miren Ereña (11-14 urte artekoen mailan irabazlea)



- Zelan jaso zenuen albistea?
Eskolatik etxera joan nintzenean aitak udaletxetik deitu zutela esan zidan, berriro irabazi nuela esaten.

- Berriro?

Bai, bai, bi bider irabazi dut lehiaketa.

- Nondik atera duzu kartela egiteko inspirazioa?

Karikatura batean zegoen txapel batetik etorri zitzaidan ideia.

- Ze desberdintasun dago zure bi kartelen artean?

Lehenengoa akrilikoa zen eta bigarrean, aurtengoan, teknika eta material ezberdinak erabili ditut: akrilikoa, collagea, tela, ironfix modukoa...

- Zeini dedikatuko diozu saria?


Marrazki-eskolako irakasleei, nire ideia lantzen lagundu didatelako.

- Etxean non jarriko duzun pentsatu duzu?

Buff, etxean artista asko gaude, pentsatu beharko dugu...

- Baten bati zeozer esan nahi?

Lagunei utz nazatela parte hartzen... ez dudala beti irabaziko eta... je, je, je... ez dut epaimahai izan nahi.



Miriam Zabala (10 urtera artekoen mailan irabazlea)

- Zelan jakin zenuen irabazi zenuela?
Etxera heldu nintzenean amak esan zidan eta saltoka hasi nintzen, poz-pozik! Amamari ere deitu nion, Benidorm-era, berria emateko.
- Etxean bada margotzeko zaletasuna duen beste inor?

Ez, ni naiz bakarra. Marrazki-eskolan dihardut, eta oso gustora.

- Beste lehiaketaren batera aurkeztu zara?

Bai, sanandresetako kartel-lehiaketara eta kalean egiten den aire librekoa ere bai, baina hau da lortu dudana lehenengo saria.

- Zer egingo duzu zure kartelarekin?

Marrazki-eskolan ikasturte amaieran erakusketa egingo dugu, eta etxera eramaten dudanean, nire logelan jarriko dut.

- Hurrengo urteetan ere parte hartzen jarraituko duzu?

Bai, ziur baietz.



Aratosteak'16



Aldatze



Urkizu



San Andres



J.A. Mogel





Amaña



Arrateko Andra Mari





La Salle



EtXeko artista

Munstroak txanpu-ontziekin

MATERIALA

- ✓ Kotoia
- ✓ Txanpu-ontziak
- ✓ Kuterra
- ✓ Alde biko zinta itsasgarria
- ✓ Papera
- ✓ Artaziak
- ✓ Arkatza



PAUSOAK

- 1.- Txanpu-ontzien etiketa kentzeko, ur berotan sartu. Behin etiketa kenduta arkatza batekin ahoa eta begiak margotu, baita moztu behar duzun marra ere.
- 2.- Kontu handiz sartu kuterra munstroaren buruaren goialdean hasierako mozketa egiteko. Ez kezkatu ez bada oso ondo geratzen. Gero zuzenduko dugu artaziekin.
- 3.- Munstroaren burua artaziekin moztu. Besoak marraztu erabiltzen ez dugun txanpu-ontziaren alde banatan, eta moztu.
- 4.- Besoak munstroaren bizkarrean itsatsiko ditugu. Paper batean begiak eta ahoak marraztu, eta ontzian itsatsi.
- 5.- Horman jartzeko, alde biko zinta itsasgarria erabili eta listo!

Ti-ta!

Galtzerdi-eskularruak

Galtzerdiak, artaziak, haria, jostorratza eta imajinario apur bat. Horixe besterik ez duzue behar hotza egiten duenerako eskularru dotore batzuk egiteko. Heldu baten laguntza beharko duzuela kontuan hartu.



Tortilla-barraskiloak



OSAGIAK

- ✓ Arrautzak
- ✓ Gatza
- ✓ Perrexila
- ✓ Gazta xehatua
- ✓ Film gardena
- ✓ Urdaiazpiko- eta gazta-xerrak
- ✓ Saltxitxa egosiak



PAUSOAK

- 1.- Arrautzak platerean irabiatu. Gehitu gatza, perrexila eta gazta xehetua. Bota nahasketa gozogintzarako erabiltzen diren molde karratu batean, azpian laberako papera jarritz. Aurrez umeldu pixka bat papera.
- 2.- Berotu labea (10 minutu 200 gradutan) eta sartu prestatutako nahasketa (5-10 minutu 180 gradutara). Egositakoan atera labetik. Film gardena jarri gainean eta buelta eman, horrela errazago aterako duzu tortilla.
- 3.- Tortilla mahai gainean duzula estali urdaiazpiko- eta gazta-xerrekin. Bildu guztia tutu forma emanaz eta estu-estu. Plastiko finarekin inguratu eta utzi hozkailuan 30 bat minutuz.
- 4.- Denbora hori igarotakoan kendu plastikoa eta zatitu 2 zentimetroko lodierako xerrak. Hor dituzu barraskiloen oskolak. Barraskiloaren gorputza egiteko erabili saltxitxa egosiak. Begiak eta antenak egiteko erabili hazi beltzak eta azenario tirak.



Ti-ta!

Madalenak 3 minututan



Nahastu ondorengo osagaiak ontzi batean: 4 koilarakada handi irin; 2 koilarakada handi Cola Cao; 3 koilarakada azukre; arrautza bat; 3 koilarakada handi esne; 3 koilarakada handi olio, eta txokolate pixka bat zatituta. Madalenak egiteko moldeetan bota eta sartu mikrouhin-labean 3 minutuz. Erraza, ezta?



EKAITZA



EGUN EURIKU BATEAN NAIK KALERA JOATEA NAIZ ZUEN BAIENA BERE AMAK EZ ZION LAGU




HAU GERTA EZ DADIN NIK GOMENDATZEN DIZUET, ZUEN AME IET KASU EGITEA MEDEZA!!

Salma Fernandez
4. maila



ILIAS BOUSBAA
4. maila
2015-2016




HAU GERTA EZ DADIN EZ IBILI FOERTE KOLUMPIOTAN ZE BESTELAN HEZUR BATA PUTO DEZAKEU.




BEGIAK ITXITA HEGAN (6-7 URTE)

Hondartzan nago, ur ertzean, itsaso bare-bareari begira. Ur-azala ispilu xelebrea da gero! Ni ote naiz, ba, hor dagoen umea?



MARTETARRAK ZARAUTZEN (8-10 URTE)

Martetarrek gogoan zeukaten 1969an Zarautzera egindako espedizioa. Laster, berrogeita hamar urte beteko ziren bidaia hura gertatu zenetik. Bidaia berri bat egin nahi zuten, zarautzarrekin batera berrogeita hamargarren urteurrena ospatzeko. Baina amerikarrek izan dute horren berri eta bahitu egin nahi dituzte beren teknologia eta arma sofistikatuak lapurtzeko. Hala ere, martetarrak lasai datoz. Lortuko ote dute bere helburua?




ARMIARMA TXIKI BATEN EPOPEIA HANDIA (10-12 URTE)

Berak ez du errurik jaio den bezalakoa jaio delako. Armiarma da. Eta ezer egin gabe, mundu guztiak gorrotatzen du. Laster ikasiko du jendeak ez duela maite. Denek hil nahi dute, zapaldu, txikitu. Zein gogorra horrela bizitzea! Hala ere, bidaia miresgarria egingo du gure protagonista txikiak. Ezagutuko du izua, arriskua, gosea; baina baita amodioa ere, bihotz oneko jendea, eskuzabala. Baztertzen ditugun guztien istorioa da hau. Ezberdinak direlako besterik ez, haientzako omenaldi bat da ipuin hau.



EZ DA MUNDUAN MIN HANDIAGOA EMATEN DUENIK (6-8 URTE).

Arrantza eguna da, eta erbia eta hiena solasean ari dira eguneroko kontuez. Ez da munduan gezurrak baino min gehiago ematen duenik, esan zuen erbiak, eta hiena barrez hasi zen. Erbiak frogatu egin nahiko du ez dela munduan min gehiago ematen duenik, eta pastel berezi-berezi bat egingo du errege jauregiaren atean.



NUVOLARI PLAZA (8-10 URTE)

Franti xelebrea ez da atzo goizeko pertsonaia. Aspaldi sortutako pertsonaia du egileak. Nuvolari honetan, erretiroa hartu gabe jarraitzen du Frantik, Gustav alkatearen esanetara, hurrena konpontzea tokatuko zaionaren zain. Pasadizo guztiz arrunta baita Frantiren herrian beste edonon gauzarik estrainoena izango litzatekeena. Nuvolari Plazak biltzen ditu gauza arrunt harrigarrien ikuskizun zerrenda.



107 KIWI (10-12 URTE)

Aroaren aita Felix, alai eta maitagarria da, baina baita xeble samarra ere. Halako batean desagertu egingo da, eta Aroak, Txoribel bere belearekin, haren bila joan beharko du. Fantasiar eta xarmaz beteriko abentura dibertigarria asmatu du Unai Elorriagak.

bitxikeriak



Gizakiak, goizetan, zentimetro bat altuagoak gara. Egunean zehar txikitzen goaz, bizkarrezurreko muin batzuk estutu egiten direlako. Gauean, erlaxatzen garenean, zentimetro bat irabazten dugu.



Azenarioak ilunpetan ikusten laguntzen du, A bitamina duelako.



Zazpi egun egon gaitezke jan barik, baina urik edan gabe ezin dugu 48 ordu egon.



Odola ura baino 6 bider potoloagoa da.



32 hortz eta hagin ditugu, 8 mozteko, 4 zatitzeko eta gainontzekoak murtxikatzeko.



40.000 sumendi baino gehiago daude munduan.




Koalek 22 ordu egiten dituzte lo.



Ibiltzean 200 muskulotik gora erabiltzen dira.



Munduko lekurik lehorrena Atacamako basamortua da, Txilen.



Gameluek 3 betile dituzte.



Itsasorik gaziena Itsaso Gorria da.




Archaeopteryx hegazia ezagutzen den lehen hegazia da. Orain dela 150 milioi urte bizi izan zen.

Harri filosofala

Bazen behin Xabier izeneko arkeologo bat. Egun batean bere emaztea lanera eta bi semeak eskolara joan zirenean bakarrik gelditu zen etxean. Telebista ikusten geratu zen. Telebistan esan zuten Egipton harri filosofala aurkitu zutela.

Harri filosofalak ikutzen zuen guztia urre bihurtzen zuela ere esan zuten. Berak Egiptora joatea pentsatu zuen eta emazteari komentatu zion. Emazteak esan zion diru pixka bat aurreratu beharko zutela. Xabierri bururatu zitzaion merkadillo bat muntatzea. Bere semeek beren panpinak, erabiltzen ez zuten arropa, baloiak... eman zizkioten aitari merkadilloan saltzeko. Merkadilloa jarri eta dena saldu zuten.



Egiptora joan ziren hegazkinez. Egipton hotel batera joan ziren gaua pasatzera. Hurrengo egunean piramide batera joan ziren. Semeek beldurra zuten baina Xabierrek ez zien kasurik egiten. Bere emazteak, beldur baziren, kanpora irteteko esan zien. Xabierrek inoren laguntzarik ez zuela behar esan zien, eta haserretu egin ziren. Xabierrek harri filosofala aurkitu zuenean oso pozik sentitu zen, baina harria hartzea zihoanean suge handi bat agertu zitzaion. Beldurtu egin zen. Borrokan hasi eta sugeak jo eta lurrera bota zuen. Hil egin behar zen eta harri filosofala hartzera joan zenean, ukitu eta urre bihurtu zen. Bere emaztea bila joan zenean urre bihurtuta ikusi zuen. Besarkada bat eman zion eta urrea desagertu egin zen, bere maitasunak indar handia zuelako. Harri hura ezertarako ez zutela behar erabaki zuten. Benetan nahi zutena familia izaten jarraitzea zen. Harri gabe bueltatu ziren etxera, baina zorientsu.

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.
MEREZI DU...

Xabier Sologaitua



zu margolari!

